

Kilimak!

SEXUEN HEZKUNTZA
LEHEN ZIKLOA LEHEN HEZKUNTZA
NEREA SANCHO



erein

Kilimak!
SEXUEN HEZKUNTZA

LEHENENGO ZIKLOA LEHEN HEZKUNTZA

Nerea Sancho

Debekatuta dago, legeak zehazten dituen salbuespenetan izan ezik, obra hau edozein eratan berregitea, honen komunikazio publikoa eta moldaketa egitea, aurrez jabetza intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitu bezala har daiteke (Kode Penaleko 270 eta hurrengo artikulak). CEDRO erakundeak (Centro Español de Derechos Reprográficos) (www.cedro.org) babesten ditu aipatutako eskubide horiek.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2007-07-16)

Orientabide psikopedagogikoak:

Itziar Urkola Goenaga

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

Irudiak:

Ivan Landa

© Nerea Sancho

© EREIN. Donostia 2007

ISBN: 978-84-9746-379-9

L. G.: BI-2643-07

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.com

www.erein.com

Inprimatzailea: Grafman S. A.

Pol. Industrial El Campillo. PA2

48500 Gallarta (Bizkaia)

Kilimak!

SEXUEN HEZKUNTZA

LEHENENGO ZIKLOA LEHEN HEZKUNTZA

Nerea Sancho

Carmen Toledori gure "Cosillas"engatik.

2006-2007 ikasturtean Uzturpe Ikastolan (Ibarra)
Lehen Hezkuntzako lehen eta
bigarren mailan zeuden ikasle eta irakasleei.

erein

aurkibidea

Ongi etorri, aniztasuna! 12

Lehenengo blokea **Jatorria** 19

Lehenengo galdera:

Zergatik ekarri ninduzuen? 20

Bigarren galdera:

Non nengoen ni jaio aurretik? 30

Hirugarren galdera:

Nola sartu nintzen amaren sabelean? 33

Laugarren galdera:

Nola atera nintzen amaren sabeletik? 39

Bosgarren galdera:

Zergatik dut nire familiakoen antza? 45

Seigarren galdera:

Zergatik ez dut nire familiakoen antzik? 49

Bigarren blokea **Gorputza** 53

Zazpigarren galdera:

Zergatik egiten dute pixa mutilek zutik
eta neskek eserita? 54

Zortzigarren galdera:

Zer gertatuko litzateke bihar esnatu eta
beste sexukoa izango bazina? 61

Bederatzigarren galdera:

Zergatik gustatzen zaizkit hainbeste besarkadak
eta laztanak? 64

Hamargarren galdera:

Zergatik ezin ditut zenbait gorputz
atal ukitu zuen aurrean? 67

Hamaikagarren galdera:

Utziko al didazu zu biluzik ikusten? 70

Hamabigarren galdera:

Bakarka bainatu nahi nuke, utziko didazu? 74

Hamahirugarren galdera:

Apain ibiltzea gustatzen zaigu. Zergatik? 77

Hirugarren blokea Harremanak 83

Hamalauugarren galdera:

Zergatik sentitzen dut batzuetan
zu galtzeko beldur handia? 84

Hamabosgarren galdera:

Zergatik musukatzen dute elkar
hainbeste horiek? 89

Hamaseigarren galdera:

Zer da maiteminduta egotea? 94

Hamazazpigarren galdera:

Bikote al zarete? 97

Hemezortzigarren galdera:

Jolas naiteke berarekin? 103

Etorkizuna 109

**Zer esan nahi dute liburuan zehar
ikusiko dituzun ikur hauek?**
Ikur hau ikustean...



... irakurri egingo dut.



... irudiak arretaz begiratuko ditut.



... pentsatu egingo dut.




... ariketak egingo ditut.

Nire izena da.

Eta hau ni naiz:

(Itsatsi hemen zure argazkia)



ONGI ETORRI, ANIZTASUNA!



Aniztasuna aberastasuna da!

Liburu honetan gizakiak zein **desberdinak** garen ikusiko dugu. Bizitzeko modu desberdinak ditugu. Eta denok desberdin bizi garela ikusiko dugu.

Aurrera!

Etxebizitza eta bizileku mota asko dago.





Itxura askotako bizikletak daude eta txirrindulari bakoitzak pedalei bere erara eragiten die.






Elkar besarkatzeko era asko ditugu.





Janzteko eta apaintzeko hainbat estiloren artean aukeratu dezakegu.





Elkarrekin komunikatzeko hizkuntza desberdinak daude.





Eta gurekin etxean bizi diren lagunak ere mota askotakoak izan ohi dira.



Leku desberdinetakoak izan gaitezke.

Gure gorputzak ere ez dira denak berdinak.

Harreman mota ugari sortzen dugu.

Bizipenak ere modu askotakoak izaten dira.

Batzuetan zalantzak sortzen zaizkigu gai hauen inguruan.

Badira erantzun bakarra duten galderak.

Baina beste batzuetan...

erantzun bat baino gehiago jaso dezakegu!

Ikus dezagun!



Lehen blokea
JATORRIA



Lehenengo galdera:
Zergatik ekarri ninduzuen?





Leireren familia

Leire: Aitatxo, zergatik ekarri ninduzuen mundura?

Aita: Bizitza abentura bat da eta zuk abentura hori bizitzea nahi genuen!



Leire Zerura begiratu eta hodeietan irudiak imajinatzea gustatzen zaio.



Leireren aita Autobus gidaria da.
Belarretan oinutsik ibiltzea gustuko du.





Martinen familia

Martin: Zergatik nahi zenuten ni jaiotzea?

Gurasoak: Munduan merezi duen gauza asko dago.

Adibidez, itsasoa, koloreak, lagunak, zerua,
jolasak... eta zuk horiek bizitzeko aukera
izatea nahi genuen.



Martin Ezezagunei irribarrea eragiten
ondo pasatzen du.



Martinen ama Martini janzten, garbitzen,
zaintzen eta erabakiak hartzen
irakasten dio. Beste hizkuntza bateko
lehen esaldiaikasteak poz handia



Martinen aita Autoak konpontzen
ditu. Kafearen usaina izugarri atsegin
du.

Sararen familia



Sara: Zergatik ekarri ninduzuen?

Aita: Guk ezin genuen haurrik sortu, baina izan nahi genituen.

Sara: Zergatik?

Ama: Medikuak esan zigun nire gorputza ez zegoela prest.

Sara: A...

Aita: ... Eta zure amatzok eta aitatzok ezin zintuzten zaindu.

Sara: Zergatik ezin zuten?

Ama: Ez dakigu zehatz-mehatz. Agian ez zuten dirurik edo euren lurraldean guda garaia zen... Guk argi geneukan zuk maitasuna izatea nahi genuela. Horregatik bizi gara elkarrekin orain. Horrela pozik gaude guztiok, bai zu, bai gu.



Sara egurraK, Sutan erretzen denean, ateratzen duen soinuak liluratzen du.



Sararen aita Bazkaria prestatzen du. Hitz egiten eta janzten irakatsi dio. Etxetik kanpoko lan bila dabil.



Sararen ama Banketxe batean lan egiten du. Etxera iritsi eta oinetakoak kentzen dituen unea da berarentzat eguneko unerik goxoen.

Unairen familia



Unai: Amatxo, zergatik sortu ninduzuen?

Ama: Niretzat ez da erraza azaltzea, baina saiatuko naiz...

... Gure garaian ez ziguten ondo azaldu nola sortzen ziren haurrak.



... Aitatzok eta nik **amodioa egin** genuen aldi horietako batean haurdun geratu nintzen, planeatu gabe.

... Erabaki genuen zu maitatuko zintugula eta erabaki horretaz oso pozik gaude biok.

... Dena den, guk ondo azalduko dizugu haurrak sortu nahi badira zer egin behar den.

... Eta amodioa egin arren, haurrak ez sortzeko zer egin behar den ere irakatsiko dizugu.

Unai: Umeok haurrak sor ditzakegu?

Ama: Ez, helduek bakarrik.



Unai Hondartza egunetan, zilborreko zulotxoan gelditzen den hondarra ateratzen aritzen da.



Unairen ama Oinez ibiltzen irakatsi zion eta etxeko-lanak egiten. Ekaitza denean, leihotik tximistei begira egon ohi da eta zirrara atsegin bat sentitzen.

Ariketak



Bakoitzaren jatorria desberdina dela ikusi dugu. Eta bakoitzaren erantzuna desberdina izaten da. Orain zure txanda da!



• Erantzun galdera hauei:

1. Idatziho al zenituzke zuretzat munduan garrantzi gehien duten bi gauza gutxienez?

.....

2. Zeinek osatzen du zuen familia?

.....

3. Gustura zaude haiekin?

.....

4. Zer gustatzen zaizu gehien zure familiaz?

.....

5. Eta zer aldatuko zenuke zure familian?

.....

6. Zer dakizu zure jatorriari buruz?

.....

7. Gehiago jakin nahiho bazenu, nori galdetuho zenioke?

.....



Familiakoek edota etxekoek gauza asho irahasten dizhigute. Ados zaude?



• Osatu taula:

ZER irakatsi didate	NORK